



INFORMAZIO-OHARRA

HONDAKINAK BILTZEKO NEURRIAK ETA GOMENDIOAK COVID-19AREN ERAGINEZ ETXEAN POSITIBOAK DITUZTENENTZAT EDO BERROGEIALDIAN DAUDENENTZAT.

COVID-19ak eragindako egungo osasun-larrialdiari erantzunez, Aiarako Kuadrillak honako jarraibide hauek gogorarazten ditu berriz ere:

- **Bolumen handikoak jasotzea:** zerbitzua arduraz erabiltzea eta alde zuzenetik bolumen handikoak uztearen berri ematea, doako 900 101 476 telefono-linearen edo linea berdearen app-aren bidez.
- **Garbiguneak:** instalaziora behar izanez gero soilik joatea gomendatzen da. Instalaziorako sarrera arautu egingo da, barruan behar diren segurtasun-neurriak bermatzeko.
- **Hiri-hondakin solidoen bilketa:** edukiontzia biltzeko zerbitzua **normaltasunez ematen jarraitzen da, eta bereziki indartu dira garbiketa-lanak.**

COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoeran hondakinak kudeatzeko jarraibideak ezartzen dituen *martxoaren 19ko SND/271/2020 Agindua* betez, honako hau eskatzen zaie herritarrei:

- ✓ Poltsak edukiontzietatik kanpo ez uztea, garbitzaileak kutsatzea saihesteko.
- ✓ POSITIBOekin edo berrogeialdian dauden etxeak: birziklatzeko ez bereiztea eta **gainerakoen zatikia** adierazitako jarraibideen arabera erabiltzea. Horretarako, edukiontzi gehigarriak dituzten bateria batzuk indartuko dira.
- ✓ POSITIBORIK GABEKO etxeak: zatiki guztiak (papera/kartoia, beira, ontziak eta organikoa) ahalik eta gehien bereiztea, gainerakoen zatikia murrizteko. Erosketak egiteko edo beste zerbaitetarako erabiltzen diren eskularruak gainerakoen zatikian utzi behar dira.
- ✓ Zaborra bota aurretik eta ondoren eskuak garbitzea.

Halaber, herritarrei jakinarazten zaie zerbitzuaren enpresa esleipendunak zenbait barne-protokolo ezarri dituela, langileen eta herritarren artean koronabirusa ez ugartzeko.

Herritarrei eskatzen zaie, mesedez, bete ditzatela osasun-jarraibideak eta -gomendioak, arrisku-faktoreak gutxitzeko eta, horrela, osasun-sistema asaldatzea saihesteko. Pertsona guztien esku dago birusaren inpaktua eta hedapena geldiaraztea.

Encina Castresana Astarloa
Aiarako Kuadrillako presidentea